

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

#### **Kobratzea landa eta hiri ondasun higiezin eta ezaugarri bereziko ondasun higiezin gaineko zerga eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga**

Ondoren zerrendatzen diren udal zergen 2021eko ordainagiriak kobratzeari ekingo zaio:

#### **Landa eta hiri ondasun higiezin eta ezaugarri bereziko ondasun higiezin gaineko zerga eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga**

Ordainagiriak 2021eko urriaren 18tik abenduaren 20ra bitartean, egun biak barne, ordaindu ahal izango dira borondatezko epean.

Ordaintzeko era:

1. Finantza entitateetan helbideratutako ordainketak:

– Iruña Okako Udalak zuzenean zordunduko du zergaren zenbatekoa zergadunak adierazitako kontu korrontean, 2021eko abenduaren 13an.

2. Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak (ordainagiriarekin):

– Ordainagiriak bidaliko zaizkie zergadunei, eta udalaren bulegoetan ordaindu ahal izango dituzte, astelehenetik ostiralera, jendea atenditzeko ordutegian: 10:00etatik 13:00era.

– Kutxabanken eta Laboral Kutxaren bulegoetan.

– Internetez, banku transferentzia bidez.

2021eko abenduaren 21etik aurrera, ordainagiriak Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketa Agentziara bidaliko dira, premiamendu bidez kobra daitezten.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Langraiz Oka, 2021eko urriaren 5a

*Alkate-lehendakaria*

**MIGUEL ANGEL MONTES SANCHEZ**